

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

Getxoko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko irailaren 30an, 252 Akordioaren laburpena; horren bidez honako hau erabaki zen: Getxo udalerriko gizarte kohesioan lan egiten duten erakundeei dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia onestea: 2. Lerroa Diru-laguntza ildoak: gizarte kohesioaren arloko intereseko proiektuak 2_B Azpi lerroa. BDNS (Identif.): 860574.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/860574>).

Lehena. — Onuradunak

Getxotik kanpoko erakunde, elkarte edo fundazioak, irabazi-asmorik ez dutenak, erakunde gisa erregistratuta daudenak dagokien erregistro publikoan, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin, eta Getxoko udalerrian jarduerak egiten dituztenak edo/eta Gizarte Kohesioaren arloan getxotarrei zuzenduta daudenak.

Bigarrena. — Xedea

Gizarte Kohesioko Arlorako interesekoak diren eta erakundeek Getxon edo getxotarentzat egin nahi dituzten proiektuak bultzatzea eta sustatzea da: Garapenerako lankidetza, berdintasuna, immigrazioa eta kulturantzatasuna, gazteria eta gizarte zerbitzuak.

Hirugarrena. — Deialdia

Deialdia Getxoko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko irailaren 30ean, 252 zenbakiko akordioaren bidez onetsi zen eta Getxoko udaleko webgunean argitaratuko dira deialdiaren argitarapenaren egun berean.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdiaren zenbatekoa 10.000 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskakerak aurkezteko epea

Epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau, diru laguntzen datu base nazionalaren bidez, Bizkaiko aldizkari Ofizialean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Getxon, 2025eko irailaren 30ean.—Gizarte Kohesiorako Zinegotzia, Carmen Díaz Pérez